

about

Arrieta (Bizkaia) zeharkatzen duen ibilaldi artistikoa, 11 artista garaikideren lanen inguruan egituratua. Proposamenak bisitaria paisaian barrena murgiltzera gonbidatzen du, ibilbidean zehar piezak agerraraziz, paisaiarekin elkarrizketa irekian.

egitaraua

ARRIETAN BIENNIAL:

ARRIETAN BIENNIAL: Planoa

1 San Martin Gotzainaren elizako ataria

ADRIÁN IRISARRI

2 Arrietako frontoia

SANDRA CUESTA

3 Pilotalekuko probalekua

SAIOA OLMO

4 Libaoko plaza

JAVIER R. PÉREZ-CURIEL

5 Krutzeperioa

FERNANDO RENES



Arrietako ur-biltegia **6**

MIREN DOIZ

Igarobidea **7**

IDOIA LEACHE

Black Maritxu **8**

ANDREA AGUILERA

JONE ERZILLA

MIRIAM ISASI

ELENA MENDIZABAL + URKIA SÁNCHEZ

GOOGLE MAPS

Adrián Irisarri (Garinoain, 2001)

Dioramak

Kokapena: ❶ San Martin Gotzainaren elizako ataria

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa egunetan.

Diorama bat eszena edo paisaia baten hiru dimentsioko erreprodukzioa da, eskala txikituan egina. Obra honetan, elizako arterpea eskala ezberdinetan birsortutako paisaia eta herrien maketa txikiez betetzen da, pertsonen eta animalien irudiz lagunduta. Gauzen tamaina txikitzean, artistak fantasiako leiho antzeko bat sortzea lortzen du kalea bezalako eguneroko espazio baten erdian. Artistak txiki egiteko eta mundu eta paisaia ñimiño hauen barrutik ibiltzeko gonbita egiten digu.

Sandra Cuesta (Hondarribia, 1978)

D.U.S.T. 1

Kokapena: ❷ Arrietako Frontoia

Orduategia: Egunean 3 aldiz aktibatuko da (12:00/17:00/17:30)

Iraupen estimatua: 17minutu

(Rolling erakusketa-programa ekainaren 20an hasiko da, 12:00etan, soinu-piezaren entzunaldiarekin)

Frontoia oihartzun-kutxa artistiko handi bat bihurtzen da. *D.U.S.T. 1* Arrietako frontoirako berariaz sortutako soinu-interbentzio bat da; espazioaren oihartzuna aprobetxatuz, artistak akustikarekin jokutzen du, soinu digitalak jokoan dabilen pilota batek bezala errebotatu dezan. Horrela, obrak zentzumen-bidai bat proposatzen du: inpaktuen sendotasun fisikoarekin hasten da eta, pixkanaka, konposizio melodiko bilakatzen da.

Saioa Olmo (Bilbo, 1976)

Hiperstizioak Arrietan

Kokapena: ③ Pilotalekuko probalekua

Orduategia: Ekainak 20 eta 21 (11:00 - 14:00)

Ekainak 26 eta 27 (17:00 - 20:00)

Hiperstizio bat errealitatea sortzen duen sinesmen funtzional bat da; hau da, kolektiboki hainbeste imajinatzearen ondorioz, azkenean gorpuztu eta egia bihurtzen den ideia bat. Hiperstizioak Arrietan lanean, artista herriko jendearekin bilduko da bienala nolakoa izan litekeen, bertatik zer espero luketen, zerk harrituko lituzkeen eta nola eragingo liekeen jakiteko. Elkarrizketa hauen bidez, grabatuta geratuko direnak, komunitatearen beraren lekukotasunek obra zuzenean josten eta eraikitzen joango dira erakusketak irauten duen bitartean. Obra bizi bat, komunitatearen ahotsa erabiltzen duena, guztion artean, herriaren etorkizunari forma emateko.

Javier R. Pérez-Curiel (Oviedo, 1978)

12:21

Kokapena: ④ Libaoko plaza

Orduategia: Soinu instalazioa ekainaren 20tik 28ra,

erlojuaren zifrek ordu kapikuak osatzen dituztenean

(12:21 / 13:31 / 14:41 / 15:51 / 20:01 / 21:12) aktibatuko da

Proposamen hau plaza eta elizako kanpandorra lotzen dituzten bi obratan banatzen combat: Lehenengoa soinu-instalazio bat da: egunean sei aldiz, erlojuaren zifrek 12:21 eta 21:12 arteko ordu kapikuak osatzen dituztenean, kanpaiek egitura palindromikoetan oinarritutako konposizio bat joko dute: Ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrera berdin irakurtzen den melodia bat, denborak bere urratsen gainera itzuli nahi duela dirudien musika-ispilu bat balitz bezala. Bigarrena kanpaia tubularrez osatutako soinu-eskultura bat da, plazan kokatua, eta bertatik pasatzean jotzen denean hots egiten duena. Soinutik harago, artistaren helburua kanpaiak ukitzean sortzen den bibrazio fisikoa esperimendatzea da, kanpandorre barruan hautematen den sentsazioa kalera eramanez.

Fernando Renes (Covarrubias, 1970)

Una sociedad espiritualmente libre...

Kokapena: ⑤ Krutzeperioa

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa

Fernandok Krutzeperioan esku hartzeko gonbitari erantzun dio, gailua bere zeramika-praktika partekatutako alderantz berrantolatzeko modu gisa pentsatuz, eta definituko duena Umilladeroaren, Arrietaren eta ikuslearen arteko elkarrizketa izango dela ulertuta.

Miren Doiz (Iruñea, 1980)

12:21

Kokape●: Arrietako ur-biltegia

Orduategia: etengabea ekainaren 20tik 28ra

Arrietako ur-biltegiak kontsumitzen dugun baina inoiz ikusten ez dugun ura gordetzen du. Obra honetarako, artistak uraren irudi oso ezberdinak biltzen ditu. Alde batetik, naturatik hartutako ibai eta itsasoen argazki errealak erabiltzen ditu. Bestetik, interneteko bilatzaileek (gure garaiko orakuluek) “ura” bilatzen dugunean ematen dizkiguten erantzunak biltzen ditu: irudikapen ez-errealak, manipulatuak, editatuak.

Idoia Leache (Burlata, 1999)

Lay on me

Kokapena: ⑦ Igarobidea

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa egunetan

- Argazki bat aterako diozu?
- Ez, argazki bat ez. Bideo bat egin behar diot ingurutik.
- Zergatik...? Zergatik bideo bat ingurutik? —Bestela ez garelako gogoratzen...
- Ez garela zertaz gogoratzen?
- Kitto, ikusten? Horrela... Alde guztietatik nola zen, lana egiten dugunerako...

(Komediarik gabe itzuli da elkarrizketa, jatorrizko bideoaren transkripzioa baita) Aita baten eta bere semearen arteko elkarrizketaren transkripzioa, artistak YouTube-ko bideo batetik jaso.

Miriam Isasi (Vitoria Gasteiz, 1981)

Plomada inversa

Kokapena: ⑧ Black Maritxu

Horario: 11:00h-18h los días expositivos

Beruna edo plomada igeltseroek harresi bat, grabitatearen indarrari esker, guztiz zuzen gelditzeko erabiltzen duten tresna tradizionala da. Obra honetan kontrakoa gertatzen da: heliozko globo handi batek gora egiten du, berunak alderantziz funtziona dezan eta airean zintzilik geratu dadin, grabitateari aurre eginez. Esekidura-ariketa fisiko honen bidez, mahaiaren gainean eskuz idatzitako testuarekin eta soinu leun batekin batera, instalazioak espazioaren arauak doitzen ditu eta ingurua beste ikuspegi batetik begiratzera gonbidatzen gaitu.

Jone Erzilla (Durango, 1999)

Berriro daramadana

Kokapena: 8 Black Maritxu

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa egunetan

Obra honen izenburuak berak dioen bezala, artistak denboran zehar (2022 eta 2026 artean) metatuz joan den hainbat lanetako materialak, hitzak eta irudiak berreskuratu ditu. Hona dakartzkio, Black Maritxuko plataforma biribilera, eta espazio honetan kokatzeko eta egoteko modu berri bat bilatzen die. Artistak azaldu duenez, gauzak benetan bizitzeko, berriro bizi behar ditu, berriro ikusi, berriro entzun. Memoria-ariketa bat da: iraganeko materialetara itzultzea, transmititzen zioten sentsazioa gogoratzea eta Arrietan bizitza berri bat ematea.

Elena Mendizabal (Donostia, 1960)

+ Urkia Sánchez (Bilbo, 1997)

PACK

Kokapena: 8 Black Maritxu

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa egunetan

*PACK*ek Black Maritxuko plataforma zirkularraren egiturarekin jokatzeko du, bi altueratan banatuta dagoena: behean zurezko oinarria eta goian plastikozko estalki gardena (polikarbonatoa). Artistek koloretako forma plastikoak jarri dituzte tarteko espazio horretan, bi mailen artean harrapatuta utziz. Bi altuerak zulo batzuen bidez komunikatzen direnez, piezak hurbiltzeko eta horien bidez begiratzeko gonbita egiten dio jendeari, barruan itxita geratu diren formak ezagut ditzan.

Andrea Aguilera (Bilbo, 1997)

(izenbururik gabe) círculos sobre círculo

Kokapena: 8 Black Maritxu

Orduategia: 11:00-18:00 erakusketa egunetan

(izenbururik gabe) círculos sobre círculo Black Maritxuko preludio-proiektuaren ezaugarriari erantzuten dien site-specific proposamena da. Instalazioak beirazko hainbat ontzi behin eta berriz jartzea proposatzen du. Zirkuluak zirkuluaren gainean. Euri-uraz betetzen den baso bat, gainezka egiten duen beste bat. Uraren ondorioz oztopatzen den argia, sortzen diren itzalak... Forma osatzen duten keinu minimo errepikatuak. Instalazioak erakusketaren espazio- eta eguraldi-baldintzekin elkarrizketan aritzea du helburu, nolabait, parte hartzera gonbidatuz.

babesle nagusia




babesleak



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA



ARRIETAKO
UDALA

Bilbao
PORT **B**



125  **Iberdrola**

kolaboratzaileak



www.arrietanbiennial.com

@arrietanbiennial

rolling
rolling
rolling
ARRIETAN BIENNIAL!